

OINARRIZKO GAITASUNAK ETA CURRICULUMA**0. -SARRERA**

HEZKUNTZA SAILAREN erronkarik garrantzitsuenen artean, GAITASUNETAN oinarrizten den heziketa martxan jartzea da. Dekretua ere atera da, 0tik 18 urterako ibilbidea edo curriculuma zehazten duelarik. Hainbat giza baliabide ere horren zerbitzura jarri dira.

Oinarrizko gaitasunak eta Curriculumak zer diren eta nola ezarri ikasteko prestakuntza saio bereziak ematen ari dira lurraldeetako gune bakoitzeko Berritzeguneak.

“Eskola Porrotari” aurre egiteko asmoz egin da gaitasunetan oinarritutako planteamentu aldaketa hau. Memorizazioan oinarritutako irakaskuntzaren alderdi ahulak sendotzeko asmoz

Izan ere, egiten jakiteak, ikasten ikasteak, pertsonaren garapenarekin zerikusi handiagoa du eta gizabanakoaren independentzirako edo autonomiarako ere planteamentu egokiagoa da.

Memorizazioan soilik oinarritu beharrean, arlo bakoitzeko gaitasunak lortzen joateak, guzti hori borobiltzea dakar.

1. -GAITASUNAK ZERTARAKO?

Bizitzako egoera bakoitzean sortzen denari erantzun egokia eman ahal izateko. Horrela esanda definizio orokorregia diru-

di. Hala ere, Curriculum honek oinarrizko gaitasunak lantzea eskatzen du, praktikan egiten asmatzea, alegia.

Lau alderdiren inguruan bil dezakegu kontzeptuaren edukia



KONZEPTUA DEFINITZEKO ORDUAN, ZENBAIT ITURBURU EDO KORRONTE DESBERDIN BILTZEN DUELA ESAN DEZAKEGU, besteak beste ondokoak:

- DELORS txostena
- PISA
- EUROPAKO PARLAMENTUA
- MEC
- EAE (07ko) Oinarrizko curriculumean oinarrizko gaitasunak txertatuz eta gaitasun orokorrak erantsiz

Curriculum horren nondik norakoak aztertzerakoan, alabaina, helburu orokorrak laburkiro gogora ekarri ondoren, arloetako helburu zehatzak aurkeztera joko dut, ikuspegi zabal eta osoa eskaintzen ahaleginduz:

2. HELBURUAK:

2.1. Helburu orokorrak

- Pertsona bezala hazten joatea
- Hiritar aktibo eta orekatua garatzea
- Helduarora arrakastaz beterik heltzea
- Bizitzan zehar etengabe ikasten jarraitzea

2.2. Arloetako helburuak:

2.2.1.-Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna

Gertakariak jakintza zientifikoaren eremu askotarikoen ikuspegitik aztertzeko behar diren oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

2.2.2.-Ikasten ikasteko gaitasuna

Norbere buruaren jakintzen berri eta kontrola izatea, pentsamendu estrategikoa, lankidetzarako gaitasuna eta norbere burua ebaluatzeko ahalmena, baita ere, lan intelektualerako tekniken jabetasuna lortzea.

2.2.3.-Matematikarako gaitasuna

Zenbakiak, eragiketak, sinboloak, arrazoitze moldeak lotzen eta erabiltzen ikastea, informazioa sortu eta errealitateko alderdi espazial eta kuantitatiboaz jabetuz interpretatzea, eta bizitzako arazoak konpontzeko gaitasuna lortzea

2.2.4.-Hizkuntza-Komunikaziorako gaitasuna

Hizkuntzaren erabilera askotarikoak ahoz zein idatziz erabiltzeko gaitasuna, hots, errealitatea ulertu, interpretatu eta azaltzeko eta ezagupena eraikitze bidean, pentsamoldea, emozioa eta jarrerak antolatu eta erregulatzeko gaitasuna lortzea.

2.2.5.-Hizkuntza-Komunikaziorako gaitasuna

Gaitasun hau bi motakoa dugu:

- **Kognitiboa:** mundua *ulertzeko* balio duen gaitasuna
- **Azaltzailea:** ulertutakoak munduari buruzko *diskurtsoa eraikitzeko* balio duen gaitasuna

2.2.6. -Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Informazioa bilatu, lotu, prozesatu, komunikatu, ezagupenak lortu, adierazi eta ikasteko eta komunikatzeko gaitasun bihurtzea.

2.2.7. -Gizarterako eta herritasunerako gaitasuna

Jakintza askoren erabilera eskatzen du gaitasun honek. Bizitzako egoera jakinetan erabakiak hartu eta ondorioen erantzule izatea nahiz gizarteko errealitatearen ulermena, lankidetzaz, bizikidetzaz eta herritartasunaz landuz, gizarte pluralaren hobekuntzan konprometitzea

2.2.8. -Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Ikasleen gozamenerako eta aberasteko erabiliz, jarrera kritikoa baloratzeko orduan gizarte, arte zein kultura adierazpenak ezagutzea. Kultur artekotasunean, Euskal Herriko kulturari -arbasoengandik jasotakoari zein egungo Euskal Herriko kulturari- lehentasuna emanez.

2.2.9. -Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Ardurak, irmotasuna, norbere buruaren ezagupena, autoestimua, sormena, autokritika, kontrol emozionala, hautapen gaitasuna, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena nahiz akatsetatik ikasi eta arriskuak hartzeko ahalmena barru hartuko lituzke

3. -DIDAKTIKAK ERE LEKU ZABALA HARTZEN DU BEHEKO HIZKUNTZA GAITASUNEN JABEKUNTZAN

Hurrengo lerroetan aurkezten den taulan hizkuntzaren komunikazio-gaitasuna lortzeko jarraitu ohi den prozesua aurkezten da. Begirada errazez gogora ekartzeko bide izango dugu:

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO GAITASUNA

GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA	GAITASUN ESTRALINGUISTIKOA	GAITASUN TESTUALA	GAITASUN LINGUISTIKOA
<p>Xedea: Egoera sozio-kulturalez ohartzuz jokatzeko jakitea Testuinguruaren arabera jokatzeko Nori zuzendua Erabilera formala eta informala Hizkuntza forma partikularrak...</p>	<p>Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa Zeinu ugari baliaturik: eskuen bidez adierazi, plantak egin, objektuak erakutsi, argazkiak edota irudiak egin...</p>	<p>Ahoz eta idatzirik: Errealitateari lotuak, Literarioak errealek Ez errealek Geldiune eta puntuazio markak</p>	<p>Fonetika Lexikoa Morfosintaxia H1-H2-H3... Gaitasun cleanitza</p>

3.1.-Hizkuntza funtzioak jaso eta eman: ulermen maila ekoizpenaren aurretik gertatu ohi da, beraz, jaso arren ematea motelago gertatzen da, eta ahozko hizkuntza idatziaren aurretik doa, ahozkoa delarik oinarria.

3.2.- Prozesu orokorra edo bilakaera pragmatikoa: bertokoena eta etorkinena:

- **Bere inguruko oinarriko mezu linguistikoak ULERTZEA**
- **Kideekin komunikatzeko behar dituen mezu linguistikoak EKOIZTEA**
- **Baliabide linguistiko eta ez-linguistikoak ulertzea eta erabiltzea**
 - HIZKUNTZ ADIERAZLEAK, esaldiak
 - HIZTEGIA eta MORFOSINTAXIA, adierazle abstraktuak
 - JARDUERAK, alderdi pragmatiko-komunikatiboa
 - **Zeinu ez linguistikoak:** zeinu linguistikoekin batera, adierazi nahi dugunaren lagungarri modura, keinu ugari erabiliko dira: eskuen bidez adierazi, plantak egin, objektuak erakutsi, argazkiak edota irudiak: *ingurua ulertu, entzumena landu, imitatu...*

- **Metodologia komunikatiboak** ziurtatzen du ondoen beharrizan komunikatiboak asetzea.
- Ikastetxeko Curriculumuma **haurren hizkuntzen programazio adostua** da.
- Hizkuntzen **oinarri komunak** eta **metodologia berdinak** dira programazioaren abiapuntua.
- Hizkuntza bakoitzean ikasitakoa besteetara igarotzea ahalbidetzen duen **ikuspegi komunikatibotik** programatuta.

4.- Gaiarekin zerikusia duten beste zenbait gogoeta

Irakaskuntzan emango diren urrats berrien nondik norakok laburkiro aurkeztu ostean, gaiaren inguruko beste gogoeta batzuk ere bildu nahi ditut zuetariko norbaitentzat argibide izango direlakoan:

4.1.- *Euskal curriculuma*

Nahiago nuke nik, EUSKAL hitza merezi duena izango baltz, hots, Euskal Kulturatik abiatua, eta Euskal Herrian bertan sortutako curriculuma.

Hori ere egon badago, orain dela urte batzuk burututa. (Honen edukia ikusi nahi duenak interneten aurki dezake). Izenburu honako hau duela ageri da:

“DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA” OINARRIZKO TXOSTENA.

Hezkuntzako erakunderik gehien oniritzia du gainera. Aurkezpenak oso arrakastatsuak bilakatu ziren lekurik gehienetan. Martxan dagoenak ere onurak ekarriko dizkio edozein lekutako hezkuntzari, gureari barne.

Curriculuma eta kultur ibilbidea baliokidetzat harturik burutua dugu, ondorioz, Kultura eta Euskal Kultura batzen dituelarik.

Ikuspegi edo abiabide kontua da diferentziak markatzeko izan ditudan arrazoirik garrantzitsuenak. Honen ikuspegia edo abiabidea Euskal Herria eta Euskal Kultura da eta bestearena, martxan jarri denaren egokitzapen hutsa egitea. Uste dut garrantzia eman beharreko datua dela.

Talde handi baten izerdiz burutua delarik honako fitxa teknikoa du:

- **ZUZENDARITZA TEKNIKOA:** Aitor BILBAO, Lore ERRIONDO, Xabier GARAGORRI, Pedro M. LEGARRETA
- **DISEINU TALDEA:** Xabier GARAGORRI, Jesús Mari GOÑI, Antoni ZABALA
- **ARLOETAKO HEZKUNTZA KOPETENTZIAK:** 15 erakundetako ordezkarien lana.

4.2. -Euskararen komunikazio gaitasuna eta erabilera

Gaitasun egokirik gabe, erabilera urritzen joaten da, eta, alderantziz ere berdin, gutxi erabiliz gero gaitasuna galduz joan ohi da.

Bizitzako funtzio guztiak betetzeko erabiliz gero, ostera, hastapenetan komunikazio-gaitasun eskasa izan arren, bizitzako funtzio guztiak betetzeko erabiltzen bada, hizkuntzaren komunikazio gaitasunari zuzen-zuzenean eragingo dio.

Hori horrela, huts egiteko arriskurik gabe, **hizkuntzaren erabilerak erabiltze-esparrua edo Hizkuntza Komunitatea** behar duela esan dezakegu.

Gai hauetan maisu handia dugu **Txepetx**, eta aditu askok jarraitu dituzte Hizkuntzen azterketak egiterakoan beraren definizio eta ikuspuntuak.

M^a Jose Azurmendi dugu horietariko bat eta berak honela definitzen du Txepetx-ek beharrezkotzat jotzen duen **Hizkuntza Komunitatea**. Honelako ezaugarriak izan behar ditu:

- Ingurune eta lurraldetasun politiko-juridiko-sozial jakin batean kokatua egon behar du.
- Hitzun multzoa izan behar du.
- Funtzionatzeko norma komunitario bereziak izan behar ditu hitzun multzo horrek.
- Hitzun multzo horrek erabili egin behar du delako hizkuntza. Jakitea ez da nahikoa (adibidez, latinak ez du hizkuntza komunitatea osatuko, erabiltzen ez delako).
- Hitzun multzo horrek jarrera eta ekintza komun batzuk gauzatu behar ditu (adibidez, Euskal Herrian dauden hiru islandiarrek ez lukete osatuko hizkuntza komunitatea elkarrekin jarduten ez badute).

Euskararen komunitatea: Gizartea edo **jendartea** lurralde jakin batean dagoen eta bere burua auto-produzitzen duen gizabanakoek osaturiko multzoa da, normalean berezko kultura nahiz gizarte-erakundeak dituen. Honen azterketa gizarte zientziak egin ohi dute.



4.3.-Kanpora begirako ekimenak behar dira curriculumak ikastetxera begira dagoelako

Curriculumik egokiena abian jarrita ere, paraleloki gizarteko beste alderdi ahul batzuk konpondu beharra ere ikusten dut. Hauek lirateke garrantzitsuenak:

4.3.1.- Aurreko plangintzetan ikasitakoentzat plangintza berezia ezartzea:

ezinbestekoa genuke hau, aurreko urteetan ahalegin handiz aurrera ateratako planak alperrik gal ez daitezen edo egindako lanari, euskalduntze prozesua guztiz burutuz, etekinak ateratzeko.

4.3.2.- Guraso erdaldunentzat eurei egokitutako hizkuntza plangintzak abian jartzea, seme-alaben ikas-prozesuan oztopo izan beharrean (haurrak familia-giroan ezin izango luke laguntzarik jaso ezta euskararik erabili ahal izan ere), benetako eragile izan daitezen.

4.3.3.- Etorkinen kasuan bereziki prestatutako plangintza eraginkorrak abian jarri beharra ikusten dut, ikastetxeko curriculumetik aparte edo honi erantsiz, egin-eginean ere, beraien giza egoera sozio-ekonomikoa eta bestelako berezitasunak kontuan izango dituen

Honetan, ikasbidea Israelek burututako hizkuntzaren prozesutik jaso beharko genuke, ahalik eta eperik txikienean euskalduntzeko aukerak eskainiz. Horrek, jakina, eskola-matrikulak dohainik eskaintzez gainera, eskola-orduak lan modura hartu eta ordaintzea ere ekarri beharko luke.

Eskualde euskaldunetako kasuak, bereziki aztertu beharko lirateke, ahalik eta azkarren eta ondoen bertakotu daitezen. Etorkinak gure herrietan “ghetto” bihurtzea alden du behar dugu eta Euskal Hizkuntza-Komunitateko kide izatea bideratu behar dugu, bereziki, aipatu den bezala, euskaldun kopuru handia duten eskualdeetan, osterantzean immigrazioa euskarren kalterako gerta daitekeelako.

Plangintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko, baliabide ekonomikoz hornitu beharra dago ezinbestean. Hizkuntzaren aldetik planteatu eta laburkiro aztertu dugunak, izugarriko eragina eta garrantzia du herri euskaldunetako bizitzan.

Pilare Baraiazarra Txertudi